

6. ERROMANTIZISMOA: KONTZIENTZIA HISTORIKOA ETA ZIENTZIAREN ZENTZU BERRIA



John Constable: View on the Stour near Dedham, 1822

Erromantizismoa Alemanian eta Erresuma Batuan XVIII. mende amaieran eta XIX. hasieran sortu zen mugimendu artistiko, literario, kultural eta politikoa da, Ilustrazio eta Neoklasizismoko arau aristokrata, sozial eta politikoen aurkako mugimendu iraultzailea. Pentsamendu eta idazkeraren askatasunagatik irudimen eta subjektibitatea dira mugimenduaren joera bereizgarrienetakoak, sentimenduaren garrantzia gailenduz.

Erromantiko hitza, jatorriz behe latineko *romanticus* "erromantzezko", hitzetik datorrena, latinezko idazkien arau estuak betetzen ez zituzten erromantze-hizkuntzan idatzitako *roman* (kontaketa) izenen hedaduratik hartu zen XVII. mendean, garai hartako zentzuzkotasun eta arrazoizkotasunaren arau klasikoak betetzen ez zituzten literatura moduak izendatzeko: fantasiak, gauza bitxiak, egiak neurtzen ez zituzten gertaerek leku handia zuten literatura moduaren izen gaizto gisa, alegia. Eleberrietan baizik gertatzen ez direnak aipatzeko erabiltzen zen, hitz batean esateko, "erromantiko" hitza. Handik mende batera, ordea, arte eta literatura gustuak aldatu zirelarik, omenezko bilakatu zen "erromantiko" izatea, ingelesez hasi, eta Europako hizkuntza nagusi guztietan gero, fantasiako gauzen, gauza irrazional, misteriozko, bitxi, malenkoniako edo beldurgarrikoen zale egin zenean European zabaltzen ari zen sentikortasun berria. Orduan azaldu ziren antzinako gaztelu gotikoak, hondoa jotako monasterioak, paisaje pintoreskoak ("pinturazkoak"), bakartiak, malkarrak; eta orduan zabaldu zen, orobat, erromantikotasunaren eta Erdi Aroaren ideia baten arteko lotura.

Alemanian **Sturm und Drang** mugimenduak erromantizismoaren mamia ekarri zuen: arrazionalismo klasikoaren eta Frantziaren eraginaren kontrako sentimenduzko erreakzioa eta nazioaren goraiapmena. Ingalaterran ere antzeko egoera zegoen: irudimenaren, iragandako garaien goraiapmena, Erdi Aroarekiko zaletasuna, arrazoiaren eta olerkiaren kontrakotasuna aldarrikatzen dira literaturaren ezaugarri bezala.

Erromantizismoak **askatasuna** esan nahi du literaturan, forma aukeratzeko eta edukia aukeratzeko askatasuna. Literaturaren eraberritze guztizko bat esan nahi du horrek, arau klasikoak desegitea baitakar, eta neoklasizistei mendekua hartzea, horrenbestez. Frantzian, hala ere, oso gogorra izan zen klasikoaren eta erromantikoen arteko gatazka.



Poesian ere forma berriak azaldu eta entseatu baziren ere, antzerkian izan ziren

aldakuntzarik handienak, neoklasizismoaren arauekin alderatuz batez ere. Antzerki berriak ordura arte Shakespeareren obretan baizik iritsi ez zen askatasun bat eskatzen du. Eraberritze horren sustraia nazio espirituaren sentimenduan datza; ondorioz, **nazionalismoaren gorakada** dator Europako herrialde gehienetan; hain zuzen ere, eragin arrotzak deuseztu eta Frantziako neoklasizismoaren eragina deseginik literatura nazional berri bat sortu nahiak eragiten baitu joera berri hori. Horregatik daukate horren leku handia historiako gaiak eta gertaera nazionalak, nortasun nazionalaren adierazgarri direlako.

Klasizisten iritzian dramak behar zituen batasunen ordez (leku, denbora eta ekintza batasuna), gai bakoitzak bere arau bereziak behar dituela uste dute erromantikoek. Nahiago dituzte gai historikoak, menderatuen eskubideak aldarrikatzen dituztenak batez ere, gai klasikoaren ordez. Shakespeare, Lope de Vega, Calderon, Schiller... izango dira handik aurrera eredu baliozkoenak.

Nobela berriak sentipenak eta pasioak deskribatuko ditu aurrerantzean, eta **nobela historikoa** asmatuko da, **Walter Scott**-en eskutik, hura izango baita sortzailea eta maisua. Haren protagonista idazlearen beraren itzala izango da maiz, idazleak bere baitan murgildurik deskribatuko baititu sentipenak, eta sortuko du mundu miresgarria, exotikoa, menturazkoa. **Goethe**-ren *Werther* izan zen horretan erromantikoaren eredu, egunkari baten gisan pertsonaiaren barrenean murgildurik haren sentipen sakonenak azaldu eta unibertsal bihurtu baitzituen.



Werther gazte erromantikoa

Erromantikoaren jarrerak

a) **Ilustratuek arrazoimenean jarritako konfiantza sendoa eten egingo da erromantikoaren eskuetan.** Erromantikoek ez dute uste galderei erantzuteko eredu egokirik egon daitekeenik. Ez dute uste ongizatea jakintzan oinarri daitekeenik; hau da, ez dute uste, XVIII. mendeko pentsalariak uste zuten bezala, naturaren (gauzen eta fenomenoaren izaera) ezagutzak hobeto bizitzen lagun ziezaiekeenik. Ordura arte proposatu eta bultzatu ziren ordena, lasaitasuna, oreka, armonia eta zentzua baztertu, eta subjektibotasuna, gizabanakoaren garrantzia, irrazionaltasuna, bat-batekotasuna, irudimena, betikotasuna eta abar, hobetsi zituzten erromantikoek.

b) **Arrazoimenean aurrean, intuizioaren alde jarri ziren erromantikoak.** Emozioaren, entusiasmoaren edo erabateko barnebilketaren ondotik konkistatutako ezagutza eta egia proposatu zuten. Arrazoimenean hotzaren aurrean bizitzaren erraieraraino iristen den emozioaren eta sentimenduaren indarra zuten nahiago.

c) **Mundua ezagutzeko** ez dira eredu egokiak ez Geometria (Descartes) ez Matematika (Newton), baizik eta **poetaren intuizioa**. Gauzak horrela, norberak sortzen ditu idealak eta balioak; bakoitza da norbere munduaren sortzaile, eta sormen horren eredu poeta izango litzateke, bere mundua poema bat balitz bezala sortuko lukeena.

Erromantizismoaren balio berriak

- Idealaren guztizko estimazioa: harekiko leialtasuna, zintzotasuna eta sakrifizioa positiboki baloratuko dira.
 - Urrutimina (exotismoa): garai eta leku bitxi eta exotikoen egarria. Askotan Erdi Aroak asetu ohi zuen gogo hori, beste batzuetan Ekialdeak. Alde horretatik, Erromantizismoaren konstanteetako bat ametsa da: urruneko parajeetako oroimin lausoa.
 - Norbanako sortzailearen guztizko autonomia: jende arruntaren giza kate eta arduetatik aske dagoen jeinuaren laudorioa. Norbanakoa sortzaile den neurri berean dira herriak ere sortzaile: norbere herritasunean, hau da, folklorearen eta hizkuntzaren erroetaraino baitaratzearekin dimentsio berri bat hartu zuen herriak, bizidunon izaera bat hartu zuelarik. Honek guztiak nazionalismoaren loratzea ekarri zuen. Herri literaturaren -ipuin, elezahar eta kanta- biltze eta ezagutzera emate lanetan eredugarri gertatu ziren **Grimm** anaiak. Haien ildotik Europa osora zabaldu zen herri folklorea biltzeko joera erromantikoa.
-
- Aurrerantzean "gutxiengoek" (minoriek) gehiengoek baino estimu handiagoa izango dute. Frakasoak arrakastak baino estimu handiagoa izango du. Zergatik? Frakasoak indibiduo erromantikoaren idealaren handitasuna erakusten duelako, transzendentzia eta, nola ez, eskuraezintasuna. Idealaren eskuraezintasun horrek definituko litzuke idealaren tamaina eta benetako balorea. Frakaso horretan egongo litzateke heroi erromantikoen tragedia.
 - Artearen helburua edertasuna da. Edertasunak sormen lana erabat originala dela esan nahi du. Edertasun horren irispidea patu bilakatuko zaio poetari.
 - Norbanakoaz harago gaztetasunaren aldeko joerak ere arrakasta izan zuen. XVIII. mendea arte iraun zuen piramide sozial zaharra hautsi ondoren, botere eta aberastasun goreneraino iritsi ahal zen printzipe edo duke jaio gabe ere. Hor zegoen Napoleonen eredia ondorengo belaunaldiei norabide distirante bat seinalatuz: hogeita lau urterekin jenerala zen eta hogeita hamarrekin Frantziako jaun eta jabe. Napoleonen traiektoria "iraultzaileak" erromantizismoaren eta hasierako errealismoaren belaunaldia goitik beheraino zirrarratu zituen.
 - Benetako bizitza beste inon dago, ez hemen eta ez orain. Erromantizismoko poeta nagusiek ez dute "hemengoak" izan nahi, hau da, arrazoimen eta erre-alismo estuan araututako gizarte baten partaide. Benetako maitasunak, esate baterako, munduaz harantzagokoak dira. Horregatik agertzen dira Erromantizismoan maitasuna eta heriotza lotura mistiko batean; maitasuna/heriotza binomioaren desarroiloan emakumea sinbolo baten indarrez agertuko da.

Laburbilduz, XVIII. mendeko azken heren horretan gertatu ziren bi iraultzek, bata Frantziako Iraultza politiko-soziala (1789) eta Erromantizismoarena bestea, hurrengo bi mendeetako gizakien mundu ikuspegi eta mentalitateak markatu zituzten. Harrezkero, askatasuna -moral, politikoa eta artistikoa- bihurtu zen aldarri nagusi. Aurrerantzean ez zegoen gaindiezinezko muga moral, politiko eta artistikorik: maitasun arautuaren al-

boan maitasun pasioa edo maitasun absolutua aldarrikatuko dute Erromantizismoaren jarraitzaileek; erreforma sozialen aurrean, iraultza; eta erlijioaren ordez, arteak beteko du hark utzitako lekua. Ez dago ba, ez araurik, ez neurrik, ez mugarik norbanakoaren eutsiezinezko askatasun sortzaile mugagabearentzat.

1. Erromantizismoa Alemanian

1770 ingurukoa da *Sturm und Drang* (Ekaitza eta Bultzada) mugimendu literario eta teorikoa. Jatorrizko uholde erromantiko horren maisuak **Johann Wolfgang Goethe** (1749-1832) eta **Friedrich Schiller** (1759-1805) izan ziren. 1782an taularatu zen Schiller-en *Gaizkileak* antzerki lana. Berehala hartu zuen drama horrek **Sturm und Drang** mugimenduaren barruan ohorezko lekua. Hauxe da antzezten den istorioa: justiziarik gabeko gizarteak bultzatuta, Karl Moor protagonista gaizkile bihurtzen da eta lapurtuz eta jendea hilez hartuko du mendekua. Aldi bereko heroi eta gaizkile izatea da bere patua. *Don Carlos* (1787) eta *Gilen Tell* (1804) dira Schillerren beste antzezlan nagusiak. *Gilen Tell* da askorentzat bere lanik onena; obra hau askatasunaren eta herrialde baten zapalkuntzaren aurkako aldarria da.

Goethek nahiz Schillerrek, espiritu klasiko orekatuan heziak zirenez, barru-barrutik erromantizatu zuten Alemaniako ordu arteko klasizismoa. Beraiek izan ziren, alde horretatik, Alemaniako erromantikorik klasikoenak.

Werther (1774) deritzan nobela argitaratu zuenetik, Europako Erromantizismoaren aitzindari eta maisu bilakatu zen Goethe. Bere garaikideen artean, egoera malenkoniatsu eta jarrera etsiko gazteen eredu bilakatu zen liburuko protagonista. "wertherismo"tzat ere ezagutu zen jarrera hori, eta gazte batek baino gehiagok -nobelako protagonistari jarraituz- bere buruaz beste egin zuten.

Baina Goetheren lanik enblematikoen bere *Fausto* da. Maisu lan horren lehen bertsioa 1790ekoa da; gaur egun ezagutzen den bertsioa hil aurretxoan eman zuen amaitutzat. XVI. mendetik aurrera ezagutzen zen herri literaturan Faustoren elezaharra: Fausto doktorea oso jakintsua zen, baina jakintzaren iturriekin nahikoa ez eta, liburuetan ezin bizi izan zuena dastatu eta gozatzeko deabruarekin egin zuen itun bat. *Fausto*-n giza arimaz eta haren pasioei buruz zituen esperientzia eta ezagutza bete bildu zuen Goethek.



Fausto-rako egindako ilustrazioa

Erromantizismoaren sentiberatasun zirraratsua bere baitan sufritu zuen Goethek, eta baita haren eragin arriskutsuenak ere errenditzeraino baretu. Erromantiko askoren buru izan zen berberak gaitzetsi egin zuen doktrina estetiko berriaren gehiegikeria: "Erromantizismoa gaixotasuna da" adierazi zuen.

2. Erromantizismo ingelesa

Erromantizismoaren sentsibilitatearen eta jarrera bitalen arrakastak asko zor dio Erromantizismo ingelesari. Hauek dira poeta erromantiko ingelesetan garrantzitsuenak: Wordsworth, Coleridge, Byron, Shelley eta John Keats. (Hurrengo gaian landuko dira)

2.1. Nobela eta erromantizismoa Ingalaterran: aitzindaritzia

Ingalaterrako kapitalismo industrialaren sendotze sasoian, hirietako burgesia ikasiaren magalean, emakumea bilakatu zen irakurle, eta irakurtzen zituen nobeletako

protagonista. Egoera sozialen rolak hartaratuta, emakumearen espazio bitala sentimenduen eta afektuen mundura bildu zen. Hau da, botere ekonomiko eta politikotik apartatuta, maitasunaren, afektuen eta sentimenduen mundua imajinazioan oinarriturik eraikitzen jarri zen hainbat idazle. Horien artean aurrenekoa Samuel Richardson izan zen. Richardsonek bi nobela ezagun idatzi zituen: *Pamela* (1740) eta *Clarissa* (1749). Nobela horietan, non protagonistak emakumezkoak diren, ordu arte ezezaguna zen hiztegi sentimental berri bat erabiltzen hasi zen. Sentsibilitate berri horren espazio bitala domestikoa da: familia barneko harreman sentimentalak, ezkontzan amaitzen ziren harreman zail eta sufrituak, maitasun abenturak.

2.2. Nobela erromantikoa



Garai honetako lehen emakume nobelagilea **Jane Austen** (1775–1817) da. Austen-en nobelen ardatzean emakumea dago, bere nortasun, esperientzia pertsonal eta bere jomuga sozialetik aztertuta. Maitasunak eta ezkontzak biltzen dituzten istorio erromantiko eta pasiozko horiek Jane Austen-en garaiko irakurle erromantikoen (batez ere emakumezkoen) fantasiak ase zituzten. Lasaia eta orekatua, haren bizitza bezalakoa da Austenen eleberrigintza. Pertsonaien psikologiaren azalpen umoretsua eta zehatza da Austenen nobelen alderdirik interesgarriena. Hauexek dira egilearen nobelarik aipagarrienak: *Zentzua eta sentsibilitatea* (1811), *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* (1813).

Brönte ahizpak arrakasta handiko nobelagileak dira: **Charlotte Brönte**-k (1816–1855) *Jane Eyre* (1847) nobela idatzi zuen; eta **Emily Brönte**-k (1819–1848) *Muino ekaiztsuak* (1847) nobela, ingelesezko kontakizunen artean ohorezko lekua betetzen duena. Nobelagintzan errealismoa nagusitzen ari zen sasoiaren, bi ahizpek erabat erromantikoa zen sentsibilitatetik idatzi zituzten beren nobelak.

2.3. Nobela historikoa

XIX. mende hasieran sortu zen genero berri hau historiaren eta nobelaren ezkontzatik sortu zen. Erromantizismoak iraganean jarri zituen maiz begiak; agian mende hasierako bilakaera industrial zakarraren aurrean ihesbidetzat ere har zitekeen Erdi Arorako itzulera hura. Baina nobelagile historikoak paisaje berri haietan girotu ahal izango ditu XIX. mende hasierako gusturako hain atseginak ziren askatasunaren inguruko abenturak. Alde horretatik, **Walter Scott**-en (1771–1832) nobelak historian gertatutako pasadizoak bailiran irakurri ziren. Nahiz eta haren nobeletako pertsonaiak azalekoak gertatu, eta giroketa erromantikoa, W. Scottek ekintzaren eta abenturaren xarma erakargarria txertatu zien bere kontakizunei. Berak du nobela historikoaren aitatasuna, eta izugarri famatuak izan ziren egilea eta



bere lanak. Hauek dira W. Scotten nobelarik ezagunenak: *Rob Roy* (1817), *Ivanhoe* (1819) eta *Quentin Durward* (1823). W. Scotten eragina Mendebalde osora zabaldu zen.

2.4. Nobela gotikoa


XVIII. mendearen bigarren zatian kokatuko genuke genero narratibo gotikoaren sorrera. Nobela historikoaren oihartzunez beterik agertu zen, esate baterako, generoari abiapuntua eman zion nobelaren kasuan: **Horace Walpol**-en (1717-1797) *Otrantoko gaztelua* Erdi Aroaren aztarnak gordeko lituzkeen gaztelu batean girotzen da. "Beldurrezko nobela"ren aitzindaria den nobela gotikoaren ezaugarrietako bat hauxe da: misterio eta beldurrezko sentimenduen tratamendu melodramatikoa. Badu, alde horretatik, lotura xume bat gorago aipatutako nobela sentimentalekin.

Bi emakume dira nobela gotikoaren ordezkari nagusiak:

- **Ann Radcliffe** (1764-1823), zalantzarik gabe genero gotikoari sendotasuna eman ziona. *Udolfoaren misterioak* da egilearen nobelarik aipagarriena.
- **Mary Shelley**-k (1797-1851), *Frankenstein* nobela ospetsua idatzi zuen.

Bram Stoker-en (1847-1913) *Drakula* nobela izango litzateke XVIII. mendean sortutako genero haren emaitza berantiar aipagarriena.

Aipagarria da bai Shelley-ren *Frankenstein* nobelak bai Stoker-en *Drakula*-k zineman lortu duten arrakasta.



3. Erromantizismoa Estatu Batuetan

Ipar Ameriketako literatura XIX. mendean loratu zen: **Edgar Allan Poe** (1809-1849) eta **Walt Whitman** (1819-1892) dira —**Emily Dickinson**-ekin batera— izen aipagarrienak poesian. Narratiban, berriz, hiru idazle hauek gailendu ziren: **Edgar Allan Poe**, **Herman Melville** (1819-1891) eta **Nathaniel Hawthorne** (1804-1864). Maila apalagoan daude **Washington Irving**-en (1783-1859) *Alhambrako ipuinak*, Granadan entzundako elezaharretan oinarrituak; eta **James Fenimore Cooper**-en (1789-1851) *Azken mohikanoa* nobela, indiarren eta europarren oinordekoen arteko liskarren kontakizuna.

Herman Melville-k (1819-1891) itsasoko gertaeretan aurkitu zuen idazteko iturri oparoena; *Moby Dick* da, zalantzarik gabe, bere nobelarik aipagarriena. Eromenaren infernu zuloaino egindako bidaiaren istorioa da *Moby Dick*, alegoria modura hartuta: ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka epikoa da. Itsasoa, azken batean, gizonaren eta patuaren arteko lehiarentzako paisaia baino ez da. John Huston zinemagileak *Moby Dick*-en bertsio gogoangarria estreinatu zuen 1956an. XIX. mendean barrena ez zuen Melville-k arrakastarik lortu, eta



baztertua eta pobrezian hil zen. Haren nobelak maisu lantzat hartzen dira gaur egun.

EDGAR ALLAN POE



Edgar Allan Poe Estatu Batuetan jaio zen, Bostonen, 1809. urtean, eta 1849an hil Baltimorean. Bera izan zen Europan izena lortu zuen Estatu Batuetako lehen idazlea. Izan ere, E. A. Poeren eragina sakonagoa gertatu zen Europan (Frantzia, batez ere), Estatu Batuetan edo Ingalaterran baino. Estatu Batuetako kritikak gaitzetsi zuen arren, Baudelaire eta Mallarmé poeta frantsesek haren lanak frantsesera itzuli eta goraipatu izanak arrakasta handia lortu zion Europan. Poeta, ipuin idazlea eta literatura kritikaria izan zen. Misteriozko eta beldurrezko lanek eman zioten ospea: *The Raven* ("Belea") poemak eta *The Murders in the Rue Morgue* ("Rue Morgueko hilketak") kontakizunak, adibidez, oso fama handia izan zuten, eta gaur egun ere bizi-bizi jarraitzen du fama horrek. Bestalde, idazle gutxi dago literaturaren historian Poek adinako interpretazio eta hipotesi sorrarazi duenik. Oso idazle gutxi liluratu dituzte Poek bezala belaunaldiz belaunaldi irakurleak eta mitomanoak.

Bere poemak gora-behera, idazle iparramerikarraren lanik miretsienak bere narrazio fantastikoak dira. *Usher etxearen hondamena*, *Bihotz salatarioa*, *Morgue kaleko hilketak*, *Erretratu obala*, *Putzua eta pendulua* eta *Bihotz salatarioa* dira, besteak beste, narratzaile paregabearen ipuin batzuk. Fantasiatzko, beldurrezko eta umorezko generoen aitzindari izan zen. *Gordon Pymeren abenturak* nobelan ere, bere kontakizun gehienetan bezala, aluzinazioa, heriotza eta ezereza dira nagusi. XX. mendera arte Poe izan da idazle amerikarrik unibertsalena.

Bitzita zorigaitzokoa izan zuen, beti ere alkoholak eta familia-zoritxarrak baldintzatua. Azken urteetan neurrigabe edaten hasi zen, eta zenbait egunez desagertzen zen, taberna zulo miserableenetan. Krisiak gero eta gogorragoak ziren. Hainbat aldizkaritako zuzendari izan zen, eta modu berean errepikatzen ziren beti gertaerak: gau eta egun lan eginez, bere ardurapean zituen aldizkarien argitaraldiak biderkatu ondoren, arrakasta eta dirua lorturik, bat-batean depresiozko krisiak jotzen zuen, eta lur jota geratzen zen. Bazekien edariek izugarritzko kaltea eragiten ziotela, baina ezin zuen utzi. Delirium tremens-eko krisi batek jota hil omen zen, berrogei urte besterik ez zituela, Baltimorean.

Izumenezko eleberria anglosaxoniarraren erromantizismoko genero herrikoa eta tradizio handikoa da. Poek leialtasunez jarraitzen dio tradizio horri, topiko guztiei eutsiz baina osagai berriak txertatu zizkion eta generoa bikain berriztatu. Lehen begiratuan, klasikoak bezalakoxeak dira Poeren izumenezko ipuinak: heroia bakar-bakarrik dago, gaztelu zahar batean, edo ziega batean itxia, edo basoan galduta. Osagai horiek ordea Poek ez ditu inoiz deskribatzen: halako lekuetan, egoera horietan egoteak dakarren egonezina eta larritasuna deskribatzen ditu. Izuzko ipuinetan gehiago nabarmentzen da izaki bat leku bat baino, sentazio bat objektu bat baino. Poek ez du eszenografia bat antolatzen, izumenezko ipuin klasikoetan bezala; aitzitik, gogo egoera iradokitzea da helburua. Irakurketa poliki-poliki hasten da, irakurlea egoeraren dimentsio psikologikoz jabe dadin; Poeren unibertsoa ez baitago ez benetako munduan ez izadiak gaindikoan: adimenaren mundua da, gogoarena, errealitate objektiboaren gainean eraikia. Egileak ez du irakurlea mundu horren existentziaz komentatu nahi; kontzientzia guztiz nahasirik duen pertsona baten gogo egoeraren kide egin nahi du. Kontakizun askotan, benetan gertatuak fantasia bitxienekin nahastu zituen. Poeren istorio famatu batean, gorago aipatutako *Usher etxearen hondamena* kontakizunean, neurosi kasu bat aztertzen da, oraintsu jakin denez, bere ezagun batena, ez, uste zen bezala, berea.

Poeren ipuinek eragin handia izan dutela ez du inork eztabaidan jartzen; areago, literatura genero berri baten sortzailea izan zela ere esaten da, polizia eleberriarrena hain justu, nobela beltza.

Asaldagarria izaten da beti Poeren ipuinen irakurketa. Eta hala gertatzen da halako egonezin batek hartzen duelako irakurlearen irudimena, ez plazerrik gabe ordea. Poeren kontakizunek sentikortasunari eragiten diote, haren alderdirik senezkoen eta ezkutuenari. Eta eragin hori negatiboa da, ez baitu ekintzara edo ezer baiestera bultzatzen; gehienez ere, ezezagunak edo ezagutu daitekeenaren mugak gudan duten indarrari buruzko hausnarketa sorrarazten dute.

ERROMANTIZISMOA



1. Definitu Erromantizismoa hamar bat lerrotan.
2. Zer da *Sturm und Drang*?
3. Eman itzazu Erromantizismoaren bost ezaugarri.
4. Zeintzuk dira erromantikoen jarrerak?
5. Zeintzuk dira erromantikoen balio berriak?
6. Azaldu zerbait nobela historikoari buruz
7. Erromantizismoa Alemanian; Goethe: nor izan zen, zer idatzi zuen
8. Nobela erromantikoa Ingalaterran
9. Zer na nobela gotikoa? Aipa itzazu genero horretako nobela eta idazle batzuk
10. Edgar Allan Poe: idatzi zerbait haren bizitzari buruz; zer idatzi zuen?; zer mugimendu literariotan kokatzen da?

LITERATUR GURUTZEGRAMA 3

	1	2	3	4	5	6	7	8
1							■	
2	■							
3	■							
4		■						
5	■					■		■
6			■	■	■		■	
7			■					
8								

GOITIK BEHERA

1. Kontsonantea. / 1000. / Bilo (alder.).
2. Gipuzkoako herria. / Ehotako gari.
3. Allan Poe-ren ipuin bati izena damaion familia edo etxea. / Tona.
4. Erromantizismoaren sorrerako mugimendu alemaniarraren lehen hitza. / "Ez dago kerik ____ gaberik".
5. Eguzkitik babesteko oihal. / Ugaritasunezko atzizkia.
6. Masa. / Joan den urtean.
7. Iluntasun ez (alder.) / Omen.
8. Abizen euskalduna, Erromantizismoko Espainiako margolari batek zeramana. / Greziar mitologiako pertsonaia, bere kabuz hitz egin ezinda besteen hitzak errepikatuzera Hera jainkosak zigortu zuena.

EZKERRETIK ESKUMARA

1. Goethe-ren lan gorena, deabruari arima saldu zionaren izena daramana. / Kontsonantea.
2. Kontakizun.
3. Makalegi.
4. Mila. / Hizkuntza arrotza.
5. Sendo. / Lehen bokala.
6. Nota (alder.) / Bat. / Bokala.
7. Berrogeita hamaika. / Poeta erromantiko ingelesa (alder.)
8. Erromantizismoan aintzat hartzen zen balio.

